

1993: ELA, LAB eta CCOO sindikatu ekintza bateratua

Patxi Lopez Abasolo
Historialaria

1993an LABek, ELAk eta CCOOk hitzarmen sindikala sinatu zuten. Otsailaren 12an ireki zen fase hori; hala ere, bederatzi hilabeteko parentesi bat besterik ez zen izan, EAeko CCOOk Madrigo zuzendaritzak eramandako estrategia zentralistarekin bat egin eta Lan Harremanetarako Euskal Esparruari muzin egin zion arte. Azarotik aurrera ELAk eta LABek gehiengo sindikal berria eratu zuten Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren eta Euskal Esparru Sozioekonomikoaren aldarrikapenaren inguruan. Beraz, beste fase luzeago batera eramango gaituzten elementuak topatuko dira artikulu honetan aztertzen den parentesian.

In 12th of February 1993, LAB, ELA and CCOO signed on a syndical agreement. The agreement opened a new phase in the Basque syndical scene, but just nine months later the Basque section of CCOO decided to follow the centralist strategy by the CCOO direction in Madrid and ignore the so-called *Basque Frame for the Labor Relationships*. From November on, ELA and LAB formed a syndical majority around the claim of the *Basque Frame for the Labor Relationships* and the *Basque Socioeconomic Frame*. In this article we investigate that nine months period, where we can find the key elements that will lead us to the subsequent and longer phase.

1. Sarrera

ELA eta LAB sindikatuen arteko ekintza bateratua aztertzen ari naiz une honetan, formalki 1994. urtean gauzatu zena. Hala ere, lau urte horiek, 1994-1998, edozein prozesu historiko bezala, prozesu askoz luzeago eta konplexuagoaren ondorio izan dira.

Erakunde sindikal horien sorrera, izaera eta garapena hain ezberdina izanik, interesgarria da oso 90eko urteetan protagonizatu zuten hurbiltze-prozesu hura, ekintza bateratua lortu arte.

Historia luzea da ELA sindikatuarena, 1891ko uztailaren 25 hartan Solidaridad de Obreros Vascos sortu zenetik, gaur biztanle gehien duten herrialdeetan erakunde sindikal indartsuena izatera iritsi arte. Euskal nazionalismo moderatuaren eta katolizismoaren eskutik jaio zen, sortu berria zen klase-sindikalismoaren aurkako oztopo gisa. 70eko hamarkadan sortutako krisialdi ekonomikoaren ondoren, 80ko hamarkadako urte latzetan, langileek jasan behar izan zituzten neurri gogorren aurrean paktismoak eta borrokarako grina ezak definitu zuten bere jokaera. Gainerako sindikatu maioritarioek bezala, sistemaren egonkortasuna izan zuen ardatz. 1979an Estatutuaren alde egin zuen. Hurrengo hamarkadan, ordea, ibilbide historiko hori alboratu eta aldaketak gertatu ziren bere baitan.

LAB sindikatuari dagokionez, 2000. urtean bete zituen 25 urte. Urte horiek garrantzi handikoak izan ziren. 1975eko maiatzean, LAB bere lehenengo urratsak egiten ari zela, Francoren Diktadura amaitzear zegoen eta noraeza nagusitu zen bizitzaren esparru guztietan. Azken urte horietan espainiar Estatuko oposizioan haustura demokratikoaren alde zeuden erakunde garrantzitsuenek bat egin zuten gainerako erakunde politikoekin irtenbide politiko bat adosteko. Soilik Euskal Herrian eutsi zion sektore zabal batek haustura demokratikoaren estrategiari. Trantsizio-prozesuak aurrera egin ahala sektore rupturista horren barruan gertatu zen zatiketean, Ezker Abertzalea izan zen marko politiko berri hori onartu ez eta berezko marko politiko-instituzionala eskatu zuena. Hor kokatu behar dugu LAB sindikatua, zeinek hasierako tirabirak gaindituta, behin-betiko kokatu zuen bere burua Ezker Abertzalearen barruan.

90eko hamarkadako sindikalismo abertzalearen egoera azaltzeko eragile politiko abertzaleen azterketa ezinbestekoa dugu, ezin baitezakegu uler bata besterik gabe. *Egin* egunkaria eta *Euskaldun Egunkaria* izan ditut iturri nagusi. Lehenengoa, ezker abertzalekoa izateaz gain, herri-mugimenduen aldarrikapenen bozgorailua ere izan zelako. Bigarrena, egunkari euskaldun bakarra izateagatik. 1998ko San Fermine-tako azken gauean espainiar Auzitegi Nazionalak itxi egin zuen *Egin*; aurtengo otsailaren 20an *Egunkaria*. Hemendik nire elkartasuna gure historia eta bereziki herri mugimenduarena ulertzeko beretako altxorra izan diren (eta diren) horiei. Espainiar prentsari dagokionez, *El País* egunkaria aukeratu dut. Aldizkarien artean Herri Batasunako *Herria Eginez*, LABeko *Iraultzen*, CCOOko *Gaceta Sindical*, CCOO-Euskadiko *Biltzar* eta ELAko *Landeia*. KASEko hainbat argitalpen eta LAB eta ELAko *Biltzarreko ebazpenak* ere aztertu ditut.

Lan honetan inflexio-urtea izan zena aztertu dut, 1993a hain zuzen ere, orduko bederatziti hilabetetan gauzatu baitzen LAB-ELA-CCOO hitzarmen sindikala. Ikusiko dugun bezala, aldarrikapen klasikoetatik haratago, Lan Harremanetarako Euskal

Esparrua bihurtu zen ardatz. 1992ko M-28ko greban (lehenengo aldiz deialdi berezitu) eta LAB-ELA-CCOO hitzarmenaren amaieran, azken honek muzin egin baitzion helburu horri. Bederatzi hilabeteko parentesi baten aurrean gaude beraz, sindikalismo abertzalearen eta estatalaren arteko adostasun eza izan baitzen elementu nagusia.

Bestalde, sindikatu abertzaleek hartu zuten protagonismoa euskal gizartean eta bere bizitza politikoan ikusiko dugu. LABek, bere izaera soziopolitikoari eutsiz, herri-mugimenduarekin eta Ezker Abertzalearen borrokarekin bat egiten jarraitu zuen. Azken batean, lan-baldintza hobek ez ezik gizarte eredu berri baten aldeko apostua ere egin zuen hasiera-hasieratik. ELA, bere aldetik, diskurtso sindikala aldatzen hasi zen, errealtate politikoan bustitzen poliki-poliki.

Hori guztia aztertuko dugu hurrengo orrialdeetan, non 1994tik aurrera ELAren eta LABen artean gauzatu zen hitzarmen sindikala ulertzeko elementu nagusiak agertuko zaizkigun: Estatuaren zein espainiar sindikatuen jarrera zentralista, EAJren politika sozioekonomikoa eta ELArekiko harremanak, LABen irakurketa politikoa eta ELAekin lan egiteko apostua, LABen sendotze prozesua... Eta prozesu horretako oztopoak, haien izaera eta tradizio sindikalak zein Euskal Herriaren egoera izango ditugu aztergai, hain zuzen.

2. Krisi ekonomikoa eta sindikatuen batasun eza.

Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak eta Nafarroa Garaiak pairatu zuten 1992an Bigarren Birmoldaketa Industrialak, espainiar Gobernuak diseinatutako *Europako Elkarte Ekonomikoarekiko Bateratze Plana*-ren ondorioz. Boterea eskuratu zuenetik, PSOE ezartzen ari zen politika kapitalistan beste urrats bat gehiago izan zen; eta une horretan nabaritu zen Estatuaren eta Sektore Publikoaren funtzioa eta zeregin birbanatzailea eta erregulatzailea deuseztatze era bortitza eta oztoporik gabekoa. Gizarte-gastuen murrizketak, oinarrizko zerbitzu publikoen (Osasuna, Garraioak...) eta enpresa publikoen pribatizazioak, eta mugikortasun geografikoak eta funtzionalak lehentasuna izan zuten gobernuarentzat. Lan-kostua merkatzean eta lan-merkatua desegituratzean oinarritu ziren EEEen sartzeko eta lehiakortasuna bilatzeko. Gai urriko langileek osatutako teknologia errazeko produkzio-sisteman oinarritutako merkatu batera kapitalak erakartzeko baldintzarik onenak lortzeko helburuarekin hartu zituzten erabakiak.

Krisi ekonomikoa markatu zuen ildo politikoa eta sindikala 1993. urtean ere. Izan ere, batasun sindikal berrian, Aberri Egunean, Maiatzaren Lehenean, Espainiako Hauteskundeetan edota ETAk eskatutako "zerga iraultzailea"ren inguruko eztabaidan beti egon zen presente krisia. Hala ere, Gasteizko gobernuak eta Iruñekoak, ez zuten beren politika ekonomikoa aldatzeko asmorik, Madrilen ezarritako politikari so. Parametro horietan uler dezakegu, martxoan, Jose Antonio Ardanzak proposatutako Hitzarmen Instituzionala:

el Lehendakari presentaba a refrendo de los agentes sociales [...] un Acuerdo Global sobre Reactivación Económica y Empleo (Ajuria Enea, marzo 1993), más adelante Acuerdo Institucional para la Reactivación económica y el Empleo (Ajuria Enea, abril 1993), consensuado por el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales, argumentando que "sus políticas resultarán más efectivas en la medida en que se

coordinen y consensuen con los agentes institucionales y sociales” (pag. 5 del primer documento). La medida incluía medidas fiscales, financieras, de política industrial y de empleo (gestión del mercado de trabajo, formación profesional), bajo la premisa de que “el funcionamiento competitivo de la empresa constituye el pilar básico en la generación de empleo” (pág. 10 del segundo documento). Entre las medidas, figuraba la propuesta de revisión de los Presupuestos de 1993, contemplando una aportación al Fondo de Reactivación Económica y el Empleo del 3% de las retribuciones del personal de todas las Administraciones públicas vascas, para lo que convocaba la reapertura inmediata de las diferentes Mesas de Negociación de las Administraciones (pág. 12 y 27 del segundo documento). El Capítulo VI “Diálogo Social y Empleo” recomienda a los actores sociales “profundizar en el proceso de concertación, superando los modelos basados en la confrontación y la conflictividad” y “dotar de estabilidad y permanencia a los acuerdos”, proponiendo la celebración de convenios superiores a dos años; “el mantenimiento y generación de empleo competitivo” y la “adecuación de los salarios a la productividad, la competitividad y los resultados de las empresas” (pág. 25 y 28 del segundo documento). En el apartado tres del mismo capítulo, titulado Foros de Encuentro, la iniciativa propone activar el Consejo Económico y Social, sin que en el texto se haga referencia al Consejo de Relaciones Laborales ni figure reivindicación explícita de la transferencia a la Comunidad del Instituto Nacional de Empleo (INEM) (Kaiero 1999: 105).

CONFEBASKen eta UGTren babesa lortu arren, ELAren eta LABen hasieratiko ezetzak eta geroago CCOOrenak bertan behera utzi zuten Ardanzaren ekimena. Gasteizko Gobernuak ezarritako politika sozioekonomikoak eragin zuzena izan zuen ELAren eta EAJ-PNVren arteko harremanetan, aurrerago aztertuko ditugun beste faktoreak ahaztu gabe.

Nafarroa Garaian lehenengo Hitzarmen Interkonfederala ez zen gauzatu 1995era arte. Hala ere, 1993ko uztailaren 15ean sinatutako Garapen Industrial eta Enpleguentzako Hitzarmenean bezala, ELA eta LAB baztertu egin zituzten, 1993-1994ko hauteskunde sindikaletan %31,5 lortu bazuten ere. Herrialde horretan bi sindikatu estatalista horien artean adostasun estrategikoa erabatekoa zen:

El Acuerdo para el Desarrollo Industrial y el Empleo en Navarra, suscrito en 1993 para el bienio 1993-1994 por el Gobierno de Navarra, la CEN y los sindicatos UGT y CCOO [...] se reduce a manifestaciones de intención en política económico-industrial, entre las que se incluyen la de reducir el volumen de las contrataciones eventuales, hasta los porcentajes de los “países más avanzados de nuestro entorno”, y la apelación a la moderación salarial “para obtener resultados competitivos en las empresas (Kaiero 1999: 107).

LABek, ordea, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ere ezagutu zuen bazterketa instituzional hori. Izan ere, otsailaren 11n, ez zuten deitu Industri Politikaren Jarraipenerako Mahai hirukoitzean (Confebask, ELA, UGT, CCOO sindikatuak eta EAeko Administrazioa) parte hartzeko. Urrian Paulino Luesmak iragarki zuen bezala, LAB Osalan Segurtasun eta Lan Osasunerako Institututik kanpo utzi zuten. Enpresetako negoziazioetan ere pairatu behar izan zuen bazterketa —ABBn esate baterako—, INESPAL, CSI edota ACENOREn kasuetan emandako sententziek eskubide hori berresten bazuten ere.

Lehenengo hilabeteetan maiz atera ziren kalera Tubacex, Torfinasa, AHV eta ARNko (Astilleros Reunidos del Nervión) langileak, deitutako grebei eutsiz.

Horietan guztietan sindikatuen batasun eza izan zen ezaugarri nagusia. Hala ere, otsailaren 12an Gasteizko Parlamentuan egiten ari zen industria politikari buruzko eztabaida zela eta, ARN, AHV eta Tubacexeko langileek bat egin zuten egoitzaren aurrean beren lanpostuen defentsa egiteko. "AHV, ARN EZ ITXI" kamisetak eramateagatik langile batzuk Parlamentutik kanporatzen zituzten bitartean, Ibai Ezkerreko herri guztietan trafikoa geldirik egon zen bost minutuz eguerdian, *Ezkerraldea* hiritarren plataformak deituta. Mahai gainean zuten sindikatu guztiek LABek luzatutako greba orokorrerako proposamena. Aldi berean, sindikatu horren 200 ordezkari inguru bildu ziren Nafarroa Garaiko Parlamentuaren aurrean langabeziaren aurrean UPNren Gobernuaren pasibitatea salatu eta herrialde horretarako plangintza industrial eskatzeko.

Zortzi egun geroago Bilboko Euskalduna untziola izandakoaren eraikina (1900. urtean sortu eta 1984ra arte sektoreko enpresa nagusia izan zena) leherketa kontrolatu batez suntsitu zuten, eta euskal industriaren eraispenaren sinboloa desagerrarazi zuten horrela. ARNko langileak eta HBko hainbat buru bildu ziren han, pairatzen zen krisi ekonomikoa salatzen. Ezker Abertzalearen hitzetan, han ikusi zena PSOEek Euskal Herriari egiten zion "zigorraren irudi grafiko oso adierazgarria" izan zen (*Egunkaria* 93-2-21: 18).

Garaiko prentsa espainiarrean ere argitaratu ziren egoera tamalgarri haren inguruko kronikak:

Atravesar la carretera vieja de Bilbao a Santurce, la que discurre junto a la ría del Nervión por su margen izquierda, basta para comprobar que la industria que simbolizó la prosperidad del País Vasco está tocada de muerte. Apenas hay diferencia entre los edificios abandonados y los que aún funcionan. Todos semejan un amasijo de hierros, cristales rotos, contaminación, fango y miseria. En el tramo de Baracaldo a Sestao, alrededor de La Naval y Altos Hornos de Vizcaya, está la mejor prueba de los errores de la reconversión y la ausencia de política industrial del Gobierno.

Un panorama que deja sin esperanza a los jóvenes. A ellos se dirige la campaña de ELA, CCOO y LAB, que han llenado la zona de carteles con fotos de chavales que dicen: "Yo quiero trabajar en el País Vasco". Una generación a la que se lega, además, una degradación medio ambiental indescriptible. Sobre todo en las viviendas cercanas a las grandes factorías, con un grado de abandono superlativo, que se han convertido en el reino de los okupas y los marginales (Carmen Parra, *El País*, 1993ko otsailaren 28a, 42. or.).

Los 70 kilómetros del único yacimiento en activo de mineral de hierro en Euskadi son ya una enorme catacumba. Con el cierre este mes de la Agrupación Minera SA (Agruminsa), propiedad de Altos Hornos de Vizcaya (AHV), la decadencia industrial vizcaína da otro paso más en firme. Una explotación que ha puesto incandescentes los hornos altos de toda Europa con sus 275 millones de toneladas de carbonatos férricos será inundada definitivamente.

De los 526 empleos que tenía la explotación en 1982 se pasó a menos de 200 en 1990. Ahora son únicamente 103. El 15 de julio no habrá ninguno (Aitor Guenaga, *El País*, 1993ko uztailaren 2a, 54. or.).

3. ELAren eta LABen arteko harreman zailak

Faktore asko hartu behar ditugu kontuan, ELAren eta LABen arteko hurbilketa-prozesua ulertu ahal izateko. Horien artean, hala ere, Madrilgo CCOOren eta UGTren jarrera zentralista eta LABen sendotze-prozesua azpimarra ditzakegu, eta horiengana jo behar dugu 90eko hamarkadako ELA ezagutu nahi izanez gero. Jose Elorrietari egindako elkarrizketa honetan ere ikus ditzakegu:

El 27-M “marca un punto de inflexión” en la voluntad de ir configurando un Marco Propio de relaciones Laborales.

Ciertamente, el 27-M es un “elemento referencial” importante en la acción estratégica de ELA de cara al futuro, sin excluir, en principio, a nadie, “porque hemos defendido y seguimos defendiendo que la unidad de acción cuanto más amplia mejor”.

Sin embargo [...] Elorrieta manifiesta tener la sensación de que no existen “condiciones objetivas para formular una unidad de acción amplia a cuatro”, porque, a su entender, hay “una opción estratégica” muy definida por parte de las direcciones de UGT y CCOO a nivel estatal para desarrollar un modelo uniforme, centralista, poco flexible, de relaciones laborales en el Estado que se ve fundamentalmente en la negociación colectiva.

A LAB achaca el no hacer “una reflexión sindical autónoma”. “Hace una reflexión más político-partidista”. La consolidación de LAB es un hecho, “hay que buscar puntos de colaboración”. Es partidario de ensayos en común, de “ir probando la consistencia de posibles unidades de acción concreta, viendo si funciona o no funciona” (*Egin* 93-1-17: 27).

Izan ere, 1992ko maiatzaren 27ko greba euskal esparru sozioekonomikoaren alde zegoen euskal sindikalismorako benetako abiapuntua izan zen, LAB eta ELAren eskutik. Espainiar Estatuan PSOEn aurka antolatzen zen laugarrena izan zen auzian zegoen greba hura. Lehenengoa, 1979an, Langileen Estatutuaren aurka (Gobernuan UCD bazegoen ere, estatutu hori PSOErekin egindako hitzarmenaren emaitza izan zen); bigarrena 1985ean, pentsio-murrizketak zirela eta; eta hirugarrena 1988an Gazteentzako Enplegu Planaren aurka. Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia berrindustrializazioa, “dekretukada”k pentsioetan zein enpleguan zekartzan ondorioei uko egitea eta PSOEek planteatutako Greba Legearen dekretuari ezetz biribila izan ziren deialdi horrek aldarrikatu zituen ardatz nagusiak. Lehenengo aldiz, bat etortze hori data eta karakterizazio desberdin batean islatu zen, Estatuko deialditik bereizita.

Horrela, Estatuan erakunde sindikal espainiarrek, maiatzaren 28rako lau orduko lan-uzterako egindako deialdiaren aurrean, LABek, ELAk eta CCOOk greba orokorrerako deialdia egin zuten maiatzaren 27rako, zeina azkenean Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan UGTk ere onartu zuen (mobilizazioetan ez zuen parte hartu). Nafarroa Garaian sindikatuen arteko tirabirek deialdi bikoitza ekarri zuten: LABek eta ELAk greba orokorrari eutsi zioten, UGTk eta CCOOk, aldiz, lau orduko lan uztea bultzatu zuten hurrengo egunerako. ESK-CUIS, STEE-EILAS, CNT eta CGTk hiru herrialdetan soilik egin zuten bat sindikatu abertzaleekin. Nafarroa Garaian, ordea, lantoki eta sektore bakoitzean erabaki zen zein deialditan parte

hartu. ESK-CUISek 28ko mobilizazioetan hartu zuen parte Iruñean Batzarre alderdi politikoarekin. Aurretik, ELA, LAB eta CCOO (azken hauek Nafarroa Garaian ez) Bilbo, Gasteiz, Donostia eta Iruñean INEMeko bulegoen aurrean kontzentrazioak burutu zituzten hilaren 18an, eta eskualdeetako bulegoetan maiatzaren 20an. Sindikatu abertzaleek Grebaz egindako balorazioa oso baikorra izan zen, Nafarroan lortutakoaz ere bai, zeren eta erraz gainditu baitzuten herrialde horretan zuten ordezkatzeko-maila (%25). Araba, Bizkai eta Gipuzkoako eskualde eta sektore gehienetan jarraipena ia erabatekoa izan zen, eta Nafarroa Garaian %40koa, sindikatuen arabera, non Polizia Nazionalaren eta Guardia Zibilaren jarrera oso bortitza izan zen.

Lehen aipatutako elkarrizketan argi agertzen da ELAren ikuspuntua marko politiko-instituzionalaren inguruan ere:

En tanto que “instrumento de avance del autogobierno” —aunque sin idealizarlo—, ELA sigue apostando por el Estatuto de Gernika. A este respecto, Elorrieta reconoce que el Estatuto no tiene capacidad legislativa en materia laboral. “Esto es un hecho”, dice y, consiguientemente, en esta materia “es insuficiente”, toda vez que “no podemos renunciar a un modelo competencial jurídico en donde el tema laboral no sea competencia de instituciones vascas”. Pero cree que, marcando sus prioridades en los contenidos competenciales en el desarrollo del autogobierno en materia económica y social, “lo importante es agotar las posibilidades del marco estatutario”, sobre todo, en los temas del empleo y la Seguridad Social. Estas exigencias son para este sindicalista de “tipo estratégico” en la acción del gobierno, si de verdad se quieren abordar “los problemas que en materia económica y social tiene este país a medio y largo plazo” (*Egin* 93-1-17: 27).

ELAren diskurtsoan aldaketak agertzen hasi ziren, eta LAB sindikatua jabetu egin zen horretaz. Honek ELA trantsizio une batean zegoela uste zuen, “entre su historia y las necesidades que ve para el futuro del sindicalismo abertzale” (*Egin* 93-1-24: 25). Hamar urte geroago ELAko idazkari nagusiak azaldu eta baloratu zuen 1992an egindako barne-txosten baten edukia:

Hitz gutxitan esanda, Estatutua agortua zela, horixe zioen txostenak. Hortik aurrera, ezer gutxi gehiago, une hartan ez baikinen ausartu LABen izena aipatzera ere. Abstraktu samarra zen txostena. Indar metaketa egin behar zela genioen, abertzaleok batu eta elkarrekin zerbait sortu behar genuela, eta horrelako kontu orokorrak aipatzen genituen. LABen izena, oster, aipatu ere ez, esan bezala (Garzia eta Izagirre 2001: 32).

Hala ere, oinarrizko hausnarketa horrek urteak behar izan zituen behin-betiko bihurtzeko. Garai hartan egindako adierazpenetan auzia ez zegoen batere argi, kontrakoa baizik. Estatutua estrategikotzat aldarrikatu zuten behin eta berriro. Jose Elorrietak berak baloratu zuen, damu-kutsu batez, 20 urteko ibilbide estatuzale hori, “20 urteko eskarmentua” bere hitzetan. Une historiko hartan, erakundearen beraren interesa izan zuten helburu:

Guk, 1979an, Estatutuaren alde jokatu genuen, apustu hori egin genuen. Arrazoiak asko eta askotarikoak izan ziren eta ez naiz orain dena azaltzen hasiko. Kontua da guk, une hartan, erabateko lehentasuna eman geniola egitasmo hura errealitate bihurtzeari, Estatutua mamitzeari, alegia. Kolokan ikusten genuen geure etorkizuna, ez genuen garbi ikusten zein zen gure tokia, eta, trantsizioa hasi zenean,

aukera hori egin genuen, ikusten genuelako hori zela guk gizartean geure tokia egiteko bide bakarra. Hala iruditu zitzaigun, behintzat, orduan. Aukera hori, egia esan, hausnarketa sakon-sakonik egin gabe egin genuen, geure erakundeari komeni zitzaionari begira, batez ere (Garzia eta Izagirre 2001: 30).

ELAk ez zuen gustuko, ordea, LABen izaera soziopolitikoak, eta beren arteko hurbilketak ez zuela kutsu politikorik azpimarratzen zuen behin eta berriro. Bestalde, Euskal Herriaren eta espainiar zein frantziar estatuen arteko gatazka politikoak gogor eragin zion hasieratik batasun-prozesu horri.

Horren adibide dauzkagu Institutio Penitentiarioen politika eta Jose Ramon Dominguez Burillo Martuteneke hezitzailearen aurka ETAk burututako ekintzaren inguruko tirabirak. Otsailean, «espetxeetako langileen irudia hobetzeko» kanpaina iragarri zuen ELAk, prentsaurreko baten bidez. Sindikatu horren ustez, «gizarteari heltzen zaion irudi desitxuratu eta negatiboa koartada gisa erabiltzen dute batzuek beren ekintzetarako». Arazoa «kartzelako lana ez ezagutzea» izanik, espetxeak «zerbitzu publiko duin eta beharrezkoak» zirela eta kartzelako funtzionarioak «herriarren zerbitzura» zeudela egiaztatzea zen kanpainaren helburua. Bidenabar, kartzelako transferentzia eskatzen zuen (*Egunkaria* 93-2-11: 7).

ELAk azaldutako «kezka eta egonezina» zela eta, LABek esanguratsu aurkitzen zuen, beste aldetik, «presoen egoera eta batez ere euskal preso politikoei Institutio Penitentiarioen eskutik eta askotan kartzelako funtzionarioen partaidetzarekin aplikatzen zaien errepresio sistematiko eta planifikatua» ahaztea. Haren ustez, «onartezina da sindikatu nazionalista batek euskal preso politikoen dispersioaz hitz egitea ekidin izana, espainiar Gobernuak Ajuria-Eneko alderdi politikoekin batera diseinaturiko politika penitentiarioaren eta egunerok salatzen diren jipoi, irain, bakartze eta senitartekoei zuzendutako zigorren euskarri izanik». Horregatik guztiatik ELA-Kartzelak erakundeko kideei «presoen eskubideen bortzaketa guztiak salatzea» eskatzen zien LABek, eta «enkubrimendu jarrerak posibilitatzen dituzten jarrera korporatibista eta antisindikalak» alde batera uztea (*Egin* 93-2-12: 16).

Hil horren amaieran Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hiru espetxeetan ordezkari-tza zuten sindikatuetakako ordezkariak bilera egin zuten Donostian kartzelako funtzionarioen egoera aztertzeko. Adrian Gonzalez UGTko ordezkariak ez zuen zehaztu nahi izan sakabanatze-politikarekin ados zeudenentz, eta tratu txarrei zegokienez, «azaldutako azken txostenen arabera badirudi praktika horiek desagertu direla» besterik ez zuen azaldu (*Egunkaria* 93-2-23).

4. ELA, LAB eta CCOO batera

Araba, Bizkai eta Gipuzkoan ELAk, UGTk eta CCOOk Gasteizko Jaurlaritzaren eta patronalaren aurrean (Nafarroa Garaian ez zen adostasuna lortu) hirugarren urtez jarraian akordioa sinatu ondoren, 1992an dinamika komun hori eten egin zen. M-27ko greba abiapuntu, ELAk eta CCOOk bat egin zuten LABekin industrializazioaren eta enpleguaren aldeko kanpainan, 1993an, CCOOk lehentasuna sindikatu maioritarioen arteko hitzarmenean markatzen bazuen ere:

Para CCOO, el marco de unidad sindical por ese objetivo debe partir de la propuesta conjunta de CCOO, ELA-STV y UGT, al Parlamento Vasco con motivo del pleno extraordinario sobre política industrial de Febrero de 1991, cuyo desarrollo se ofrece a consideración de las otras centrales y del conjunto de los trabajadores vascos. Igualmente, la situación navarra requiere de una alternativa sindical conjunta ante la crisis industrial.

CCOO advierte ante cualquier tentación de escindir a los trabajadores vascos en supuestos frentes sindicales entre nacionalistas y no nacionalistas que sería una torpeza que los propios trabajadores se encargarían de enmendar. El frentismo sindical no se corresponde con el actual momento histórico, ni con la realidad de los tarabajadores vascos (*Biltzar*, 1993ko utarrila, 2. or.).

Hortik aurrera zaila izango zen LAB panorama sindikaletik kanpo uztea. Otsailaren 15ean gauzatu zen formalki Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian gehiengo sindikal berri hori, Jose Elorrietak, Rafa Diezek eta Santiago Bengoak sinatutako *Enplegua, Industrializazioa, Euskadiren Etorkizuna* agiriaren bitartez.

Herralde horietako industria- eta ekonomia-egoeraren azterketa egiteaz gain, enplegua eta berrindustrializazioa zirela premiazko gaiak ondorioztatzen zuen agiriak. Gobernuaren eta patronalaren betebeharrak aztertu, eta proposamen-zerrenda aurkeztu zuten, Lan Harremanetarako Euskal Esparruan oinarrituz. Aldi berean, enpleguaren aldeko ekintzen eta mobilizazio-kanpainaren berri eman zuten, martxoaren 5erako Ibar Ezkerreko greba eta manifestazioa, besteak beste. Hona hemen Hitzarmenean zehaztutako oinarritzko neurriak:

* Necesidad de que el sector público asuma en Euskadi un protagonismo directo en sectores de importancia estratégica, creándose la empresas pública vasca.

* Potenciar la coordinación entre los instrumentos financieros y económicos de ámbito vasco. Búsqueda de un compromiso con los bancos y cajas de ahorro para que colaboren en la reindustrialización:

- Creación de un ente financiero vasco.
- Desarrollo territorial y sectorial para las PYMES.
- Instituto Vasco de Empleo y Formación y Lagunkidetzeta (Seguridad Social Vasca).
- Medidas contra el fraude fiscal.

* Exigencia de transferencia a los gobiernos de Gasteiz e Iruñea del INEM, la formación profesional continua, la seguridad social y un compromiso por la defensa del empleo en la negociación colectiva.

* Mención explícita a la realización de esfuerzos para avanzar en la configuración del espacio económico y social vasco (*Egin* 93-2-16: 3).

Josu Fradek, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako UGTren idazkari nagusiak, gogor salatu zuen hitzarmen hori, ELAren jarrera bereziki, «ante esta nueva intentona de dividir el movimiento sindical en base a reivindicaciones alejadas de la realidad» eta «anteponer sus reivindicaciones nacionalistas y generar un clima de crispación

en Euskadi». CCOOri ere «un mínimo de coherencia» eskatu zion, “cuando a nivel confederal comparte análisis, objetivos y ejercita un marco de acción sindical estatal» (*Egin* 93-2-17: 21).

Hitzarmena “ildo politikoan” egina zegoela azaldu zuen Carlos Trevilla hiru herrialde horietako UGTren batzorde eragileko partaideak. «Ez dugu uste enpleguaren arazoa konpontzeko erreibindikazio politikorik sartu behar denik». Bere esanetan, «ekintza batasun sindikala euskal ekintza batasun politikoagatik aldatu da. Horregatik ez gaude bertan» (*Egunkaria* 93-5-1: 16).

Jose Elorrietak argi utzi zuen sindikatu horren ardura urrats hori ez emateagatik:

El compromiso con el desarrollo del autogobierno y con una práctica de la autonomía colectiva que respete la voluntad mayoritaria de los trabajadores vascos son condiciones necesarias para poder ir avanzando conjuntamente. Quien combate estos principios es quien está combatiendo la unidad de acción (*Aurrekoetxea* 2003: 123).

CCOOk gaizki zeritzon UGT kanpoan gelditzeari. Horrela azaldu zuen martxoko *Biltzar* aldizkarian, non Nafarroa Garaiaren “berezitasuna” ere azpimarratzen zuen:

La labor iniciada por CCOO de Euskadi en pro de un acuerdo sindical por la reindustrialización y el empleo ha dado sus frutos, aunque insuficientes por la ausencia de UGT, al lograr suscribir las bases para una amplia campaña de movilizaciones con ELA y LAB.

CCOO de Euskadi creemos necesario seguir trabajando por conseguir la plena unidad de acción incorporando para ello a los compañeros de UGT a ese proceso. Para ello estamos dispuestos a trabajar con ellos en la preparación de la jornada de movilización europea del 2 de Abril y en el desarrollo de los acuerdos que a nivel Confederal hemos suscrito para el presente año, convencidos de que no hay nada que estimule más la unidad que su propia práctica.

La situación de la Comunidad Foral de Navarra, claramente diferenciada en el terreno económico, sindical y político, exige un tratamiento específico para lo que se acuerda desarrollar un proceso de reuniones para debatir la situación en la misma, quedando claro que será ahí donde podamos alcanzar compromisos más concretos que sean compatibles con el acuerdo que tenemos con la UGT de Navarra (*Biltzar*, 1993ko martxoa, 2. or.).

UGTk aipatzen zuen “koherentzia” horri jarraiki, Hitzarmenaren aurkezpenaren hurrengo egunean, CCOO-Nafarroa akordiotik kanpo gelditu zen, Ezker Sindikalaren oposizioarekin. Jesus Garatea Nafarroako idazkariaren arabera, UGTrekiko batasun sindikalak zuen lehentasuna, herrialde horretako errealitate soziopolitiko eta sindikala arras desberdina zelakoan.

Nosotros no tenemos inconveniente alguno en mantener reuniones con otras fuerzas, con las que no descartamos llegar a acuerdos, pero hay que tener en cuenta que las realidades política y sindical son diferentes en la Comunidad autónoma Vasca y en la Comunidad navarra.

Yo creo que el acuerdo no es válido para Navarra, excepto en la zona de la regata del Bidasoa, porque promueve movilizaciones adecuadas para la CAV, y más concretamente para la margen izquierda. Una cosa es que yo crea en un proyecto político de Euskal Herria, con Navarra dentro, y otra la realidad que nos mueve del desarrollo del autogobierno en la Comunidad Autónoma Vasca y en Navarra (*Egin* 93-2-17: 21).

Hala ere, otsailaren 12an ireki zen fasea bederatzia hilabeteko parentesi bat besterik ez zen izan, CCOO Madridgo zuzendaritzak eramandako estrategia zentralistarekin bat egin eta Lan Harremanetarako Euskal Esparruari muzin egin baitzion. 1993ko azarotik aurrera euskal sindikalgintzan ELAk eta LABek gehiengo sindikal berri bat eratu zuten Lan Harremanetarako Euskal Esparrua eta Euskal Esparru Sozioekonomikoaren aldarrikapenaren inguruan. Beraz, aztertzen ari garen parentesi honetan topatuko ditugu beste fase luzeago horretara eramango gaituzten elementuak.

LABek otsailaren 20an Gasteizen egindako Konferentzia Nazionalean bi ardatz nagusi zehaztu zituen. Batetik, PSOE, EAJ eta UPN alderdiei krisi-egoeran zuten erantzukizuna eskatzea. Bestetik, lan-harremanetarako euskal esparrua lortzeko bidean, Preco II (lan-gatazkak borondatez konpontzeko prozedura) akordioa onestea, sindikatuek eta enpresarioek zituzten gatazkak konpontzeko tresna egokia zelakoan. Hala eta guztiz ere, mobilizazioak eta borrokak jarraitu zuten izaten LABen ekintza-bide nagusiak. Ikus dezagun ELA, LAB eta CCOOren arteko Hitzarmenaren inguruan Rafa Diezek aste bete beranduago egindako hausnarketa. Zailtasunez betetako prozesua izan zen, zalantzarik ez:

ELA, CCOO eta LABek berrindustrializazioa eta enpleguaren alde lortutako elkarlan ituna, azkeneko urteetan emandako urratsik garrantzitsuena izan da.

Egia da, sinatutako dokumentoan agertzen diren eskaera eta planteamenduak ez direla LABekoenak baina guretzat gutxiengo akordioa da.

Aurreko atalean, LABetik balore diferente bat eman nahi genion elkarlan itunari, orain arte ez bezala, sindikalismoak Euskal Herriko etorkizunean jokatzeko esku hartze aktiboagoaz, izan ere, Euskal Herriak bizi duen abadagune politiko eta ekonomiko honetarako euskal sindikalismoaren eragin sozialari eskas baikeneritzoke, ELAk iraundako apolitizismo kutsuz bete zerbitzuzko sindikalgintza eta CCOO eta UGTrekin egindako apostua direla kausa.

Gaur, ordea, gertutako aldaketei esker, halanola, ELAk izandako jokaera berriarekin aukera zenbait ireki egiten dira Euskal Sindikalismotik Euskal Herriko eraikuntzarako ekarpen eta protagonismo zuzena eduki ahal izateko.

Lehen aipatu bezala, burututako ituna zerbait desberdinetarako lehen urratsa izan da. Etorkizunak esango digu beraren igarpena eta garrantzia. Geuk apustu horren aldekoak gara. Emaizak ikustear daude baina bidea gutxienez jarrita gelditu da (*Egunkaria* 93-2-28: 3).

Argi dago gainerako sindikatuen balorazioa oso bestelakoa izan zela. CCOOren barruko tirabirak etengabeak izan ziren Hitzarmenaren aldeko eta aurkakoen artean, harik eta jarrera zentralista nagusitu zen arte. Horrela azaldu zuen Santi Bengoa idazkari nagusiak sindikatuaren jarrera:

CCOO de Euskadi siempre nos hemos definido como sindicato nacional y de clase. Comprometemos nuestro quehacer sindical en el marco de la Constitución y del Estatuto de Gernika y en Navarra del Amejoramiento del Fuero. En nuestro último Congreso hacíamos una apuesta por el desarrollo social del autogobierno. Dentro de esos parámetros caben todas las propuestas que se contienen en el acuerdo sindical. Si la acusación de nacionalismo es por contenidos, no la podemos aceptar, ya que nosotros seguimos planteando una práctica sindical solidaria con el conjunto del Estado y Europa. Si es por los firmantes quizá fuera más lógico preguntar a otros por qué no están en este acuerdo.

Sobre las acusaciones de que es un acuerdo más político que sindical tendría que decir que la mera descalificación no deslegitima a nadie. El acuerdo es sindical y en clave sindical, para reforzar el papel de los agentes sociales, ganar en interlocutoriedad ante las Administraciones públicas y los empresarios y para dirigir el proceso de movilizaciones contra el desmantelamiento industrial. Ahora, si se considera “político” porque como ha dicho Frade no es el momento de movilización porque se compromete la estabilidad institucional, es otra cosa. Yo creo que ahí le traiciona el subconsciente y es él quien se plantea la reflexión en clave política y quizá ello explique la ausencia de UGT del acuerdo intersindical y su actitud en el proceso de negociaciones (*Biltzar*, 1993ko apirila, 3. or.).

ELAk, bere aldetik, benetako oztopo ikusten zuen LABen izaera politikoa, Jose Elorrietak Tolosan antolatatu ekitaldi batean azaldu zuen bezala:

Une honetan ez dut ikusten ELA eta LAB estrategikoki batzeko baldintzarik, asmo txarrik gabe diot ez dudala oraino LAB sindikatu logika hutsean mugitzen denik ikusten, mugimendu politiko baten barruan baino (*Egunkaria* 93-3-5: 13).

Ezker Abertzaleak, ordea, oso begi onez ikusi zuen otsailaren 12an sinatutako Hitzarmena. Hona hemen Jarrai gazte erakundeko Joseba Kamio eta Mikel Zubimendik egindako idazkia:

LAB, ELA eta CCOOren arteko akordioak gure laguntza du. Jakin bezate hirurok, akordioak berak, beren ekintza batasunaren baliabide kontsideratu dezaketela Jarrai hala nahi izanez gero. Akordioa bi arrazoi nagusi direla eta laguntzen dugu. Lehenik, mobilizazioa delako beraren oinarri nabarmenena eta, bigarrenik, lehenitasunezko interbentzio jokaleku estatala apurtzen duelako bigarren aldiz UGT alboratu eta bere lekuan ipiniz (*Egunkaria*, 93-3-3: 3).

Martxoan, hiru sindikatuen ordezkariak Industria Batzordean azaltzeko eskatu zuen Herri Batasunak, eta, apirilaren 2an, eztabaida osoko bilkurara eraman zuen ez-legezko proposamen baten bitartez. HB, EA, eta EuEk sindikatuen egitasmoa ontzat eman zuten; EAJk eta PSE-PSOEk, aldiz, ez zuten edukia aztertu nahi izan eta Jose Antonio Ardanzaren proposamena babestu zuten. Beraz, ez zen aurrera atera ELA, LAB eta CCOOren ekimena Parlamentuak bere egin zezan HBren eskaera. EAK eta EuEk egitasmoa babestu arren, gaitzetsi egin zuten HBren eskaera, ez zelako “egokia”.

90eko hamarkadan lan-prekariatatea instituzionalizatuz eta nagusituz joan zen. Horren ondorio zuzena dugu lan-istripuen kopurua handitzea. Hori zela eta, otsailean, LABek Espainiako estatuaren aurkako salaketa aurkeztu zuen Europako Elkartearen Batzordearen aurrean, lan-osasunaren eta segurtasunaren arloko araudia eguneratu ez zuelako. Sindikatu abertzaleak salatu zuenez, Europako

Elkartearen Estatu kideei haien araudia egokitzeko emandako epea 1992ko abenduan amaitu bazen ere, espainiar Estatuak ez zuen agindua bete. ESK-CUISek bildutako datuek erakutsi ziguten lan-istripuen larritasuna:

En la Comunidad Autónoma Vasca [...] en los últimos tres años hemos tenido 139.897 accidentes laborales, siendo graves y muy graves 2.300 y ocasionando muertes en 360 casos (*Egin* 93-1-5: 7).

1993ko martxoaren 3an ere ez ziren agertu sindikatu maioritarioak, 1976ko gertaerak gogoratzeko; ELA ere ez. LAB, ESK-CUIS, STEE-EILAS, CGT eta USTK egin zuten deialdia Gasteizen manifestatzeko.

Esan bezala, LAB, ELA eta CCOOkin sinatutako hitzarmenean, enpleguaren aldeko hainbat ekintza eta mobilizazio iragarri zuten. Martxoaren 5ean Ezkerraldeko Greba Orokorrak eta Barakaldon burutu zen manifestazioak erabateko arrakasta izan zuten (azkenean UGTk eta USOk ere greba sostengatzera behartuta ikusi zuten beren burua). Eskualde horrek pairatzen zuen langabezia-tasa izugarri altua zen, %30 ingurukoa. Gasteizko Gobernuaren Lan Sailak ere grebaren arrakasta aitortu zuen. Horretaz aparte, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban mobilizazio ugari izan zuten LAB, ELA eta CCOOren arteko bat egitea. Helburua Maiatzaren 1ean mobilizazio bateratu handi bat bazen ere, ez zen azkenean gauzatu. LABek eta ELAk, beren aldetik, Nafarroa Garaian antolatu ziren ekitaldiak mantendu zituzten, Baztan-Bidasoako berrindustrializazioa eskatzeko martxoko ibilaldia eta hurrengo hilabetean Parlamentuko Lan-Batzordean parte hartzea, besteak beste.

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan Gizarte Ituna lortzeko sindikatuarekin egindako negoziazioaren markoan, martxoaren 12an, Jose Antonio Ardanza eta Gasteizko Gobernuko ordezkariak lehenengo aldiz bildu ziren LABeko ordezkariarekin, Rafa Díez koordinatzaile orokorra, Santos Indakoetxea barne-koordinatzailea, Manu Aranburu arlo tekniko-ekonomikoko arduraduna eta Xabier Arberas komunikazio-arduradunarekin, hain zuzen ere. Sindikatua lortzen ari zen erreferentzialtasunaren isla, zalantzarik ez.

Bitartean, otsailaren 11n, CCOOkin eta UGTk Madrilen sinatutako hitzarmena gorpuztuz zihoan; eta apirilaren 2an, ELAekin batera, Europako Sindikatuen Konfederazioak antolatu mobilizazioetan parte hartzea deitu zuten, azkenean nor bere kasa joan arren. Enpleguaren eta hazkunde ekonomikoaren alde, arrazakeria eta xenofobiaren aurka, eta langile guztien gizarte eskubideen defentsan aritu ziren. Aurretik, Nafarroa Garaian, CCOO eta UGTren 500 ordezkari bildu ziren mobilizazio-egun hori antolatzeko asmoz.

5. Ezker Abertzalea barne-eztabaidan

Aztertzen ari garen urtean buru-belarri aritu zen Ezker Abertzalea barne-eztabaida sakonean. Ezker Abertzaleko erakunde guztietan eragin zuten hortik ateratako ondorioek, LAB sindikatuan ere bai. Martxoan, KASEk (Koordinadora Abertzale Sozialista) publiko egin zuen azken hil horietan burututako barne-eztabaida ENAMera (Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua) zabaltzeko asmoa. Epe laburrerako eta luzerako helburuez, negoziazio politikoaz, bakeaz eta borroka armatuaz, eta Euskal Herriaren lurralde-batasunaz egin zuten hausnarketa:

Helburu estrategikoen inguruan hausnarketa berri bat zabaltzen da, hots zein lotuta dauden independentzia eta lurralde batasuna. Ezin dugu pentsatu Euskal Herria independente izango denik beraz osatzen duten sei herrialdeak independente ez badira.

Guk ezin duguna onartu da burujabe izango garenik lurraldea banatuta dagoen bitartean.

Lehenengo urratsa, dudarik gabe, Ipar Euskal Herriko abertzaleen batasuna eskuratzeari litzateke. Eta horrek arazo eta enfrontamendu historikoak gainditzea eskatzen du (*Egunkaria* 93-3-21: 6).

Horrela, Ezker Abertzaleak onartzen zuen, Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia begira aritzean eraikuntza nazionala desitxuratuta zegoela.

Martxoaren 21ean Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako abertzaletasunaren egoera larriaren isla izan ziren herrialde horietako hauteskondeen emaitzak. Frantziar Estatuan bezala, RPR eta UDF eskuineko alderdi frantsesek beren nagusigoa berretsi zuten politika-munduan (RPR eta UDF alderdiek osatutako UPF batasunak botoen %39,48 lortu zituen lehen itzulian frantziar Estatuan). Alderdi abertzaleek, aldiz, ez zuten emaitza onik bildu. Ezkerreko Mugimendu Abertzalea (EMA) eta Euskal Batasuna (EB) koalizioak %5,43 lortu zituen eta Eusko Alkartasunak %1,16. Orotara, abertzaleek 8.142 boto jaso zituzten lehen itzuli horretan, FN alderdi ultraeskuindarrak (%6,76) baino gutxiago (*Egunkaria* 93-3-23: 4, 16).

Hilaren 27an Bilboko Erakustazokan antolatutako ekitaldian KASek bere barne-eztabaidaren ondorio nagusiak azaldu zituen, *Ildo politikoaren azterketarako oinarriak* liburuxkan jaso zirenak:

Baliabideak. ENAMen ekimen politiko militarrek sortzen dituen egoera politikoen errentagarritasunari begira —indar metaketa helburutzat harturik— borroka mota guztien uztarketa politikoa garatu beharrean gaude.

Negoiazioa. ETA eta Estatuak solaskidetzaren esparru bat osatzen dutela zehaztu behar dugu, ordezkaezina, baina ez bakarra. Honekin batera, solaskidetza politiko eta sozialerako esparru zabalak ere beharrezkoak ditu negoziazio prozesuak, noski. Alderdi politiko eta erakunde herritarrek ezin dute benetako arau demokrati-koak finkatzeko orduan kanpoan geratu.

Edukiak. KASek euskal gizartearen aurrean argi utzi nahi du negoziazioaren eduki eta helburua, herri honek bere etorkizuna erabakitze behar dituen gutxienezko demokratikoetan oinarrituak daudela eta ez bere jarrera politikoan edo ezker abertzalearenean (*Egunkaria* 1993-3-28: 9).

Hurrengo urtearen hasieran plazaratutako txosten batean KAS alternatiba lortu arte zain egon beharrean, Ezker Abertzalearen etorkizunerako eredia diseinatuz joateko garaia zela baieztatzen zuen. Autodeterminazio-eskubidea lortu bitartean, bi eginkizun nagusi planteatzen zituen KASek: bat, ETArene eta Estatuaren arteko negoziazio politikoaren prozesua irekitzeari Estatuak emaniko ezezkoaren aurkako mobilizazioa; eta bi, prozesu hori indar politikoen, sozialen eta kulturalen arteko negoziazio nazional baten hasiera izango zela (KAS 1994: 67).

Ezker Abertzaleak 1992tik pairatzen zuen krisialdiari aurre egiteko asmotan, burubelarri zegoen sartuta garrantzi handiko hausnarketa-prozesu batean. Urte horietan fase berri bat ireki zen, eraikuntza nazionalaren estrategiaren inguruan hain zuzen. “Solaskidetza”, “subjektu nazionala” eta “Euskal Herriaren gutxienezko oinarri demokratikoak” kontzeptuek, besteak beste, esanahi berezia izan zuten hurrengo urteetako goera politikoa ulertu ahal izateko.

6. Aberri Eguna

Aberri Egunaren bezperan, bost elkarte herritarrek deituta (Bai Independentzia-ri, Euskaria, Abertzaleok, Herrien Liga eta Herria 2000 Eliza) *Gernikako aldarrikapena* agiria sinatu zen herri horretan. Alderdi politiko eta sindikatu abertzale guztiak gonbidatuta egon ziren, eta antolatzaileek EA, EuE, HB, Zutik, Patxa-Oldartzen, EB, EMA eta LABen atxikimenduak jaso zituzten. Abertzaleen arteko batasuna izan zen ekimenaren helburua:

1. Euskal Herriak bere burujabetza berreskuratzeko eskubide osoa du. Esku-bide hori herritarren gogan oinarritzen da, hots, etorkizunerako gogokoen dituzten baldintza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak era libre eta demokratikoan aukeratzeko duten eskubidea da.
2. Estatu espainiarra eta frantziarra derrigorturik daude euskaldunek beren etorkizuna libreki erabakitzeko duten eskubidea onartzera; onarpenik ez dagoen artean, ezin izango ditu munduak demokrata gisa ezagutu.
3. Abertzale den orok beharko du aurretik jarri Euskal Herriarenak diren interesak; talde nahiz partidu interesen aurretik izango ditu.
4. Burujabetza berreskuratzea da herri gisa dagozkigun eskubideak defenditzeko baliabiderik eskainiko digun bide bakarra.
5. Autodeterminazio bidearen onarpenak eta berau gauzatu dadin beharrezkoak diren mekanismoak indarrean jarri nahi izateak batu egin behar gaitu eta oinarritzko baldintzak eskaini (*Egunkaria* 93-4-11: 5).

Hala ere, 1993an ere ez zen ezagutu abertzale guztien deialdi bateratua. Bai, ordea, Juventudes Socialistas-EEren ospakizuna, 13 urte pasa ondoren, “aberrri” hitza gaitzetsi eta “komunitatea” aldarrikatuz. Lan honen hasieran esan bezala, krisi ekonomikoa izan zen urte horretako ekimen politikoen ardatz nagusia, Aberri Egunean ere bai. Horregatik, Herri Batasunak Barakaldon antolatu zuen, eta krisia bereziki pairatu zuen Ezkerraldeko puntu guztietatik hara abiatu zen jendetza handia. LABek, urtero bezala, bat egin zuen HBren deialdiarekin. Bestalde, Iparretarrak-ek *20 urte borroka, autonomia eta aurreproiektuaren alde* agiria zabaldu zuen, horren inguruko eztabaida pizteko asmoan. Erakunde horren hitzetan,

Este no es un programa de lo tomas o lo dejas. Es un anteproyecto, fruto de un trabajo y de una reflexión colectiva que está destinado a ser discutido, estudiado, criticado, completado, enmendado y enriquecido por todas aquellas y aquellos que desean que el pueblo vasco tome en su mano el dominio de su devenir. La reflexión dista mucho de estar acabada. Todo el mundo, todos los actores políticos, económicos, culturales, sociales, son llamados a participar en ella (Cassan 1996: 93).

ETAk ere maiz izan zuen aztergai krisi ekonomikoa. Horri aurre egiteko, ordea, gabezia handiak ikusten zituen; «Euskal Herri osoaren ikuspegi ekonomiko eta politiko bat» izatearen beharra batez ere:

Sektore guztiak dira ukituak: arrantzaleak, laborariak, industria... Eta “europar-tze” prozesuak zartada ederra emango dio langilegoari eta gizarteari oro har. Horren aurrean erreakzionatzen ez bada eta alternatiba zehatzak praktikan jartzen ez badira, jai dugu. Zentzu horretan ezinbestekoa iruditzen zaigu Euskal Herri osoaren ikuspegi ekonomiko eta politiko bat izateari; badakigu gaur egun ezinezkoa dela gisa horretako azterketa bat praktikara eramatea, botererik eta instituzio politikorik ez dagoelako. Baina ezinbestekoa zaio Ezker Abertzaleari etorkizuneko Euskal Herria izango dena bere baitan hartuko dituen azterketak egitea, Bizkaiko edo Gipuzkoako industriarekin gertatzen ari dena ikustea; euskal kostaldeko arrantzarekin (eta Lapurdi bertan sartzen da) gertatzen ari dena globaltasun baten barruan aztertzea; Lapurdiko kostaldeko betonatzea oso seriozki aztertzea edo Nafarroa Beherean eta Zuberoan gertatzen ari den hustuketa demografikoa kontutan hartzea; Nafarroan edo Araban nekazariek bizi dituzten arazoak aztertzea ere... Adibideak dira, noski, behar den ikuspegi global horrek nondik nora joan behar duen adierazten dutenak gure ustez. Azterketa global batek soilik permitituko digu gaur egun planteatuko ditugun alternatiba ezinbestean partzialak bakoitza bere aldetik joan ez dadin edota gertatzen diren konfliktuak bata bestearengandik erabat desloturik agertu ez daitezten. Euskal Herriak, bere osotasunean, Europan izan dezakeen lekua aztertu behar da, eta urratsak eman (*Egin* 93-4-18: 8).

Aberri Eguna zela eta, apirilean argi utzi nahi izan zuen LABek, bere ustez, euskal subiranotasunaren eta langileen eskaeren artean zegoen lotura. Horrela, Gizarte-itunari uko egiteaz gain, ezinbesteko ikusten zuen hamahiru urte lehenago ezarritako proiektu politikoaren aurrean marko politiko berri batera jotzea:

Sindikatu abertzale gisa, euskal langileen berehala eta etorkizuneko interesak defenditu eta lortzeko marko juridiko honen ezintasunak nabariak direla azpimarratu behar dugu euskal sindikalismotik. Orokorrean ekonomi arloan lortu behar diren ahalmenak Euskal Esparru Sozioekonomikoa eskuratzeko, euskal sindikatuok dinamika berri bat sortu behar dugu. Lortutako akordioa lehen urratsa bezala planteatu beharko genuke sindikalismotik eraikuntza nazionalaren alde benetako ekarpena burutu ahal izateko. Nortasun eta dinamika berriak sortu behar dira eta gure gizartean, gure borroka nazional eta sozialean, euskal langile eta sindikatuon paperak indar gehiago hartu behar duela LABen iritziz. Horregatik, euskal sindikalismoarentzat eta, orain arte batzuek izan dituzten mugak apurtuz, beharrezkoa izango da markoaren aldaketa eta Euskadi eta Estatuaren arteko erlazio politikoak berplanteatzea, negoziazio politikoaren bidez eta euskal subiranotasun politikoa aitortuz, hortik normaltasuna eta benetako demokrazia eta askatasuna eraikitzerik izango direlako, bide batez, euskal sindikatuok behar ditugun tresna berriak erdiestea (*Egunkaria* 93-4-11: 3).

ELAren hausnarketa oso bestelakoa zen une hartan. Artean, esan bezala, Autonomia Estatutua zuen jomuga:

Euskadiren nazio proiektuak beronen erakundeei onartutako konpetentzia arloan aurrera pauso handiak behar ditu. Konpetentzia edo ahalmen arlo hori garatzea, beti ere gaurko legedian jasotzeke dauden eskubide demokratikoei etsi gabe, gure jokoaren helburu estrategikoa da.

Estatutu prozesuaren balorazio kritikoa honen oinarria uste sendo bat da: berau autogobernarako bide estrategiko posible bakarra dela, hutsak zuzendu, blokeoak ekidin eta guztiz bideragarria den indar erlazio berri bat sortzen badira (*Egunkaria*, 93-4-11: 3).

7. Maiatzaren Lehena

Otsailean sortutako batasun sindikalaren ahulezia oso nabaria zen, arestian esan bezala ekintza bateratu hura parentesia besterik ez baitzen izango. Hori guztia argi eta garbi ikusi ahal izan zen, urte horretako Maiatzaren Lehena ospatzeko antolatu ziren ekitaldietarako deialdietan. Langabezia salatzea eta industrian oinarritutako enpleguaren sorrera eskatzea sindikatu guztien aldarrikapenak izan arren, deialdi sakabanatuak ere izan ziren Langileen Egunaren ezaugarrietako bat. Batasunean egin zirenen artean, Bilbon ELAk eta CCOOk elkarrekin burutu zutena eta Iruñean UGTk, CCOOk eta Akitaniako CGTk eta CFDTk egin zutena izan ziren aipagarrienak.

Nafarroa Garaiko bi sindikatu maioritarioen manifestazioa “Enplegurik gabe, etorkizunik ez” leloarekin abiatu zen. «Una consigna en clave navarra, española y europea», Miguel Angel Anzizar herrialde horretako UGTren arduradunak azpimarratu zuen bezala (*Egin* 93-4-30: 24). 1989an ospatu zuten azken aldiz elkarrekin Maiatzaren Lehena bi sindikatu estatualista horiek. 1993an sinatutako hitzarmenaren ondoren, ordea, UGTren eta CCOOren estrategia bateratuak egonkor iraun zuen Nafarroa Garaian.

Esan bezala, ELA, LAB eta CCOOren arteko hitzarmenarekin deialdi bateratu bat aurreikusten bazen ere, azkenean ez ziren ados jarri. LABentzat ezinbestekoa zen ekimenaren izaera nazionala:

esan behar dut hasieratik LAB prest agertu zela Maiatzaren Lehenean manifestazio nazional bateratua egiteko lortutako akordioa berrindartzeko, baina CCOO planteamendu horretatik aldendu egin zen lau hiriburuetan manifestazioak deitzean. Abiapuntu honekin guk ez dugu onartzen Bilbon hiru sindikatuok manifestazio bateratua egitea, Iruñean CCOO UGTrekin joatea eta Donostian eta Gasteizen bakoitza bere kabuz joatea (*Egunkaria*, 93-5-1: 16).

LABek, bere aldetik, eutsi egiten zion Ezker Abertzaleak zeraman borroka-ildoari. Euskal preso eta exiliatu politikoak gogoratu zituen eta, autodeterminazioa eta amnistia eskatzeaz gain, ekaineko hauteskundeetan botoa Herri Batasunari emateko deia ere egin zuen. 10.000 lagun bildu ziren kalean eta UGT-CCOOK Iruñean bildutakoan kopurua bikoiztu egin zuen.

EHLEk (Euskal Herriko Langileen Elkarte) manifestazioa antolatu zuen Baionan bigarren urtean, jarraian. EHLE talde abertzaleak euskal sindikatu bat sortzeko asmoa zuen. Sortu zenetik egindako gogoetan (3 urte), sindikatu abertzalea eraikitzeke zailtasunez jabetu arren, horren beharra sentitzen zuten elkarte horretako partaideek:

Beste sindikatuak ez dute abertzaletasuna kontuan hartzen. Guk pentsatzen dugu Euskal Herriko eskaera sozialak eta nazionala lotuak direla (*Egunkaria* 93-5-1: 17).

Artean zortzi urte iragan beharko ziren, bertako langileen talde batek aukera desberdinak aztertu ondoren, LABen egitura Lapurdi, Baxe-Nafarroa eta Zuberoara zabaldu, eta lehenengo aldiz euskal sindikatu nazionala sortzeko proposamena luzatu arte.

Arrunta ez bazen ere, sindikatu guztiak bat egin zuten apirilean Gasteizko Gobernuak onartu eta ekainaren 23an Parlamentuak onetsitako *Osasuna Zainduz. Osakidetza Plan Estrategikoa*-ren aurka. LAB, ELA, ESK-CUIS, UGT eta CCOO gogor salatu zituzten plana egitean parte hartu ez izana eta proiektu horrek zekartzan ideia batzuk. LABek egindako balorazioan “kontrarreforma” bat besterik ez zen ikusten:

Este documento, en ningún caso intenta volver a los orígenes de lo que es un Sistema Sanitario Público (gratuidad, equidad, prevención y promoción de la salud..) sino que, por lo contrario, se aleja cada vez más de ellos.

Destaquemos sólo tres de estos recortes:

- Disminución de plantillas y aumento de número de eventuales.
- En materia salarial, la contra-reforma propone condicionar las retribuciones al logro de objetivos económicos (ahorro).
- Potenciación del trabajo a destajo y de las horas extras (autoconcertación) (*Egin* 93-6-21: 7).

EA, EuE eta PPren babesa lortuta HBk eta UAk soilik errefusatu zuten *Azkuna Erreforma* hori, pribatizaziorako lehenengo urratsa zelakoan.

8. ELAren eta EAJren arteko tirabirak

Urte osoan zehar gertatu ziren tirabirak ELAren eta EAJren zein Gasteizko Gobernuaren artean. Martxoan, Gasteizko Administrazioak gizarte-itunerako egindako eskaintza aurrean, ELAren jarrera salatu zuten Xabier Arzalluz eta Joseba Egibar jeltzaleek. Gobernu autonomikoak ekonomia berbideratzeko lidergorik ez zuela eta “gizarte larrialdiko egoeran” zeudelako adierazpenen aurrean, sindikatu hori “gero eta gutxiago” ulertzen zuela azpimarratu zuen Xabier Arzallusek (*Egunkaria* 93-3-28). Apirilean, CAF enpresan eskatutako soldata-igoeraren inguruan Xabier Arzallusek esandakoari erantzunez («egoera onean aurkitzen diren enpresek lur jotzea nahi dutela») enpresen konkurrentzialtasuna eta soldaten murrizketa nahasteko “gaixo obsesioa” zuela esan zuen enpresa horretako ELAK (*Egunkaria* 93-4-7: 13).

ELAK gogor kritikatu zuen Lan Ministerioak eta CEOE, UGT eta CCOO sinatu zuten Lan Heziketarako hitzarmena. Baita Gasteizko Gobernuaren jarrera ere:

La Comisión Ejecutiva denuncia el silencio cómplice del Gobierno Vasco en su conjunto (...) que en el caso del Departamento de Trabajo y Seguridad Social se ha convertido en apoyo expreso y explícito. Es incalificable que el Gobierno Vasco dé por bueno que decisiones sobre materias de tanta importancia para nuestro futuro queden fuera del control de las instituciones y organizaciones vascas, en contra de lo que establece el Estatuto de Gernika (*Aurrekoetxea* 2003: 124).

Maiatzaren Lehenean egindako bazkari jendetsuaren ondoren, Gobernu horren aurkako hitzek haserrarazi zituen jeltzaleak:

No nos cansaremos de denunciar que el mayor enemigo del Estatuto está en el Gobierno Vasco haciendo una política en el campo laboral, sindical, estratégicamente dirigida en contra del marco propio de relaciones laborales. No estamos para pintar Euskadi de rosa, que parece ser el único color tolerable desde los coches oficiales (*op. cit.* 127)

Une larrienak, hala ere, ELAren VIII. Biltzarraren inguruan gertatu ziren. Paulino Luesma Gasteizko Gobernuaren Lan sailburua ez zegoela Biltzarrera gonbidatuta azaldu zuen Jose Elorrietak, «lan harremanetarako euskal esparruaren aurka» zegoela argudiatuz. Lan sailburuak deitoratu egin zuen ELAk «bere buruzagien tema eta zentzugabekeriagatik gizalegea haustea», eta sindikatuaren jarrera «antidemokratikoa, sektarioa eta demagogikoa» zela salatu zuen, «gizarte eta ekonomi eragile guztien arteko eztabaida, lankidetzeta eta akordioak ekar litzaketan ekimenei traba eta eragozpenak besterik ez baitie jarri» (*Egunkaria* 93-5-22: 16).

Bestalde, Jose Antonio Ardanzak uko egin zion ELAk bere Biltzarraren hasiera-ekitaldira joateko egin zion gonbiteari. Ardanzaren Gobernuak proposatutako ekonomia suspertzeko akordioa sinatzeari uko egitea zegoen erabaki horren atzean, jakina. Vasco Press-i egindako adierazpenak oso esanguratsuak izan ziren:

En este intento tengo la sensación de que yo no me he quemado. Se han quemado los sindicatos. Pero volverán al redil, sobre todo ELA. Cuando alguno me habla de “nuestro sindicato” yo ya digo que de “nuestro” nada (*Egin* 93-6-25: 6).

Azkenaldi horretan ELAren eta EAJren artean izandako liskarrak alde batera utzi eta elkarrizketari eta akordioari berrekitea proposatu zion ELAk EAJri. Uztaillean, Sindikatuaren *Landeia* hilabetekariaren *Nor bere lekuan* editorialean, «lankidetzeta esparruak eta helburu komunak aurkitu behar» zirela esaten zuen sindikatuak, «gatazkak saihestuz», «herri honen eraikuntzan zeregin garrantzitsua» baitzuten.

Urrian “elkartasun falta” itzela izatea egotzi, eta hitz gogorrak zuzendu zizkion Ramon Jauregik ELA sindikatuari:

marjinaltasun latzenean murgilduta dabil, negoziazioetatik at gelditzen baita. Langileak defenditu asmo dituen sindikatuak ezin du ELAk egin duena egin; ordezkaten dituen behargin eta langabetuak “saldu” egin ditu euren etorkizunean eragingo duten elkarrizketetan parte ez hartzean (*Egunkaria* 93-10-3: 5).

90eko hamarkada arte mantendu zuen jarrera sindikal apala kuestionatu eta analisi kritikoagoa egin izana izan zen Gobernutik zein beste instituzio batzuetatik jasotako erasoen kausa. Ekintzetan, hala era, ez zen diskurtso-aldaketa hori somatzen. Sindikatu horrek zuen indarraz jabeturik (83.000 afiliatu eta 7.486 ordezkari), behin eta berriro gonbidatu zuen Ezker Abertzaleak definizio eza albo batera utzi, eta behin betiko berezko lan-esparru ekonomiko baten aldeko apostua egitera:

En plena crisis económica, ELA ha celebrado un Congreso que ha atraído la atención de propios y ajenos. A ELA le pueden llover los cantos de sirena. Es, indudablemente, un sindicato potente. Se trata de una fuerza que, en su pasado inmediato, apoyó procesos de reconversión y se encerró en los límites de una defensa más bien tecnocrática de los trabajadores.

Su ampliación de miras, el entender que el sindicalismo tiene mucho que decir en la sociedad y es la suya una función laboral, social y política, son rasgos positivos. También lo es su apuesta por la unidad de acción sindical y la pelea por que la negociación colectiva se de en un marco propio, vasco. La contradicción surge cuando junto a las críticas al desarrollo autonómico actual se acepta —o no se rechaza— el Estatuto de Gernika. ELA se pronuncia por la autodeterminación, y puja por un espacio económico y laboral vasco, pero eso requiere una postura clara. No tanto para hoy mismo, sino como compromiso cara al futuro y a esa labor político-social pendiente (*Egin* 93-6-28: 7).

ELAko lan-ildo berria, 1993ko ekainean, Bilbon, “ELA, erantzun hurbila. El sindicato cerca” lelopean egindako VIII. Biltzarrean berretsi zuten. Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren eta LAB eta CCOOrekiko batasun sindikalaren alde, Madriletik eta euskal erakundeetatik zuzendutako politika ekonomikoaz gain UGTren estrategia zentralista ere gogor kritikatu zuten: UGT «creo que se ha convertido en el Gobernador Civil sindical» esan zuten Biltzarreko mahaiburuak (*Egin* 93-6-27: 26).

ELA prozesu nazionallean ponentzian etsipena nagusitzen bazen ere, Gernikako Estatututik ateratako marko politikoaren balioa defendatzen jarraitzen zuten sindikatu horrek:

El proceso autonómico es decepcionante y encuentra dificultades de desarrollo porque aspectos sustanciales del mismo se ven sometidos a criterios involutivos.

[...] no se da una simple ralentización del proceso transferencial, sino una importante revisión y degradación del originario sentido estatutario, una pérdida real del horizonte del Estatuto y una transgresión del pacto inicial.

[...] el Estatuto de Gernika sigue siendo el único proceso estratégico practicable hacia una etapa superior de autogobierno, a condición de corregir errores, evitar bloqueos y establecer una nueva relación de fuerzas perfectamente posible.

9. Espainiako hauteskundeak

ELAk, LABek ez bezala, ez zuten inolako alderdiren aldeko botoa zuzenik eskatu. Ezin dugu ahaztu, bestalde, PNV-EAJrekiko lotura hegemoniko hura EAren sorrerakin zaildu egin zela, 1986ko irailean. CCOOko Kontseilu Konfederalak hauteskundeetan parte hartzeko deia luzatu zien espainiar Estatuko langileei; PSOEren politika gaitsetzi zuten eta langile-mugimenduak historikoki bere burua Ezkerrean kokatu zuela gogorarazi zien (*Gaceta Sindical*, 1993ko maiatza, 8-9. orr.). Ekainaren 8an, Espainiar estatuko Legebiltzarrerako hauteskundeetan laugarren aldiz jarraian, PSOEk irabazi zuten, nahiz eta gehiengo osoa galdu. Bederatzi milioi boto pasatxo, hau da, botoen % 38,68 (% 39,5 1989an) eta 159 aulki (1989an 175) lortu zituzten legegintzaldi horretan. Azken hauteskundeekin alderatuz gero, hala ere, milioi bat boto irabazi zituen.

Arabian, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian ere PSOEek 399.199 boto bildu zituen, 1989an baino 78.872 gehiago. Horrela, 1991ko udal eta foru hauteskundeetan galdutako lau herrialdeetako botoen nagusigoa berreskuratu zuen. Estatu-mailako PPrekiko lehia itxia ongi etorri zitzaion hemen ere boto kopuru altua lortzeko. PPK ere jauzi handia eman zuen Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, bere ohiko boto kopurua bikoiztu egin baitzuen. Alderdi abertzaleek jasotako emaitzak, ordea, ez ziren hain onak izan. Ezker Abertzalea boto espainarzaileen gorakadagatik kezkatu agertu bazen ere, azken urteetan pairatzen ari zen botoen galera geldiaraztea lortu zuen. Are gehiago, 1991ko hauteskundeetako emaitzak hobetu zituen alderdi abertzale bakarria izan zen.

Parlamentuan ordezkartzita lortzeagatik, Espainiako erregearekin biltzea zegokion Herri Batasunari. Uztailaren 1ean bere bake-mezua helarazi zion erregeari Jon Idigorasek emandako eskutitzaren bidez, ETak Madrilen bertan militarren aurka jo zuen egun berean:

Herri Batasuna, ante la inminencia de la formación de un nuevo Gobierno en el Estado, quiere manifestar a Su Majestad su convencimiento de que la situación puede y debe superarse, y que ello requiere abordar medidas políticas valientes y comprometidas. El diálogo y la negociación política que Herri Batasuna reclama, además de ser el desactivador de la confrontación y de la violencia política permitirá armonizar la legítima aspiración de Hego Euskal Herria a su soberanía con el desarrollo democrático del estado, sin vencedores ni vencidos (Herri Batasuna 1999: 431).

Uztailaren 9an Felipe González hautatu zuten espainiar Estatuko lehendakari, PSOEko 159 diputatuak ez ezik CiUko 18ek eta PNV-EAJko 4ek ere haren aldeko botoa eman baitzuten. EAKo diputatuak, PP, IU, CC, ERC eta UVkoek bezala, aurkako botoa eman zuen, ordea.

10. Begizta urdina

ETak Julio Iglesias Zamora enpresaria bahitu zuen. Giza Eskubideen Aldeko Elkarteak, Bakearen Aldeko Koordinakundeak, La Fundación eta Bakea Orain taldeek ikur berria, begizta urdina, atera zuten enpresariaren askatasuna eskatzeko. Enpresariaren Elkarteetatik zein Instituzio Publikoetatik berehala jarri zen martxan kanpaina mediatiko handi bat ETA eta Ezker Abertzale osoa krisi ekonomikoaren erantzule gisa agerrarazteko. Gainerako sindikatu maioritarioek egindako adierazpenetan bezala, CCOO-k zabaldu zuen gaitzespenean ere ikus ditzakegu elementu horiek:

Cualquier idea política puede ser defendida hoy libre y pacíficamente en nuestra sociedad. Carecen por tanto de justificación cualquier otro método que vulnera esa voluntad mayoritaria. Pero como trabajadores, tenemos aún elementos añadidos. Acciones como el secuestro son elementos que se suman a la crisis industrial que padecemos, contribuyen a dificultar la salida a la misma, desvían la atención, lógicamente cuando está la vida y la integridad de una persona en juego, de los problemas del paro, la crisis o la ampliación del autogobierno (*Biltzar*, 1993ko iraila, 2. or.).

Berdin egin zuten, geroago, enpresariei eskatutako “zerga iraultzailea”rekin. Bahiketarik gabe lau urte igaro zirela gogoraraziz, krisiaren zioak “argi eta garbi” zeudela eta ez zutela zerikusirik bahiketarekin azaldu zuen behin baino gehiago-

tan LAB sindikatuak (*Egunkaria* 93-7-8: 4). Bahiketa publikoki gaitzetsi ez izana izan zen hurrengo hilabeteetan sindikatu abertzaleak jasan zuen erasoaldi bortitzaren arrazoia. Testuinguru horretan kokatu behar dugu Jose Antonio Aguiriano espainiar Estatuko Gobernuaren ordezkariaren salaketa, ETari laguntza ematea zehazki (*Egunkaria* 93-7-15: 7). LABek, ordea, bahiketa parametro politikoetan ulertzen zuen, Euskal Herriak bizi zuen «dramaren beste adierazpen bat besterik ez» baitzen. Gatazka horren funtsa «estatuak euskal herritarrei Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzeke ahalmena ukatu izanean» zetzan (*ibidem*).

ETAk berak erantzun zion kanpaina horri:

Gaur egun Euskal Herri osoan bizi den krisi ekonomiko latzaren oinarriak jartzen ziren bitartean beren poltsikoak bete eta bizi maila ederra eskuratu duten horiek, orain ezker abertzaleari eta zehazkiago ETari egotzi nahi liokete bizi dugun krisiaren erantzukizuna. [...] Langileak begiramenik gabe kanporatu eta egurtzen dituzten aberats horiek hunkitu egiten dira beren aisialdierarako beluntzietan erraz xahutzen dituzten diru apur batzuk Euskadi Ta Askatasunak berreskuratzen dituenean. ETAk Euskal Herriaren alde ekiteko berreskuratzen duen diruak ez du Euskal Herriaren ekonomia suntsitzen ez eta bere geroa zalantzan jartzen... alderantziz, ETaren borrokari esker herri honek oraindik etorkizunik baduela esan dezakegu inongo harrotasunik gabe (*Egin* 93-8-3: 10).

Azaroan argitaratu zuen agirian luze aritu zen ETA horren inguruan. Hilabete horietako mobilizazioetan protagonismoa bereganatu zuten Julio Iglesiasen *Ikusi* enpresako langileentzat eta ELArentzat ere izan zituen hitzak:

Entrepresaren etorkizuna arriskuan jarri dugula errepikatu dute milatan, jakin badakitenean “Ikusi” entpresa zuzendaritzak inbertsioak Euskal Herritik kanpo egiteko asmoa zuela; jakin badakitenean espainiar Gobernuak “Ikusi”ko zuzendaritzari inbertsioak Euskal Herritik kanpo egiteko eskeintzak luzatu dizkiola, bai eta erraztasunak eman ere; jakin badakitenean “Ikusi” enpresak izan dezakeen arazo finantziero nagusia espainiar Administaritzak entpresa horrekiko duen zorra dela, eta horrelako eskeintza batekin “zuritu” nahi zuela. Jakin dezatela, beraz, espainiar Gobernuak dela, entpresarena ez, baina “Ikusi”ko Martuteneko langileen etorkizuna arriskuan jartzen ari zena-dena.

ELAko Elorrietaren hitzak, berez esanguratsuak izanik, ez dira erraz ulertzen. Duela hilabete batzuk Euskal Herriak jasaten duen krisiaren arrazoiak eta erantzuleak aski ongi kokatu bazituen ere, oraingoan entpresarienganako elkartasun eta laguntza eskeiniz aritu da.

Hobe luke Elorrieta jaunak langabezia dauden langileekiko elkartasuna eta laguntza eskatzea, hobe luke langileen defentsarako indarrak erabiltzea, hobe luke lan bila emigratzera kondenatzen ari diren gazteez kezkatzea (*Egin* 93-11-5: 10).

Sindikatu maioritario guztiek hartu zuten parte bahiketaren aurkako ekimen guztietan. Dinamika horrek kolokan jarri zuen ELA, LAB eta CCOOren arteko batasun sindikala. Jose Elorrietak «LABekin eta beste sindikatuekin akordioak sinatzearen helburua Euskadin lan harremanetarako eremu propioa sortzea zen eta norabide horretan lan egiten jarraituko» zutela azaldu eta argi utzi zuen «atzera emandako pausoa» zela, eta ez zela posible “proiektu nazionalak aurrera egitea horrelako gertaerak normaltzat hartzen” baziren. Argi zegoen, ELAko buruaren ustez, bahiketak LABetik “urrutzen” zituela (*Egunkaria* 93-8-31: 5).

Bahiketa sindikatuen arteko lankidetzarako oztopotzat jotzea, ordea, "huts egitea" zela uste zuen LABek, eta euskal gizarteak bizi zuen «errealitateari aurre egiteko konpromezurik ez izatea» egotzi zion ELAri. Lan harremanetarako euskal esparrua ez osatzeko benetako oztopoa indarrean zegoen sistema juridikoa zen LABen ustean: «Sindikatu abertzaleek ez dute Hego Euskal Herriko langileak defenditzeko aukerarik, eta errealitate hori ez du Iglesias jaunaren bahiketak aldatzen edo baldintzatzen». Bestalde, ETA desagertzeko beharraz Elorrietak azaldu-tako ikuspegia ere kritikatu zuen LABek, zeren eta «euskal gatazkaren errealitatea sinplifikatzen jarraitzen du, diskurtso antzua eginez eta aldi berean, oso antzerakoan beren eredu politiko eta ekonomikoa ezartzen diguten sektoreen jarrera politikokoekiko». Gatazkaren irtenbidea «elkarrizketa eta negoziazio prozesu baten bidez» etorriko zela azpimarratu zuen berriro (*Egunkaria* 93-9-2: 7).

Arabian, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian aurrez aurre kaleratu ziren enpresariaren askatasuna eskatzen zutenak alde batetik, eta bahituta zegoena Euskal Herria bera zela baieztatzen zuen ezker abertzalea bestetik. Lau hilabete horien balantzea gogorra izan zen ezker abertzalearentzat ere:

Desde el 5 de julio al 5 de noviembre la actuación de las fuerzas policiales en Euskal Herria tuvo un balance aterrador: 160 detenidos, de los cuales 53 denunciaron malos tratos y dos resultaron muertos mientras permanecían en manos de la Guardia Civil y la Policía española (Gurutze Iantzi eta Xabier Kalparsoro, "Anuk", hurrenez hurren). 47 ingresaron en prisión y el resto fueron puestos en libertad. De todos ellos, 31 fueron detenidos en operaciones desarrolladas en Gipuzkoa y que se relacionaron con el secuestro, de las que sólo 9 acabaron encarceladas y nada más que dos por delitos relacionados con el comando que supuestamente mantenía oculto a Julio Iglesias Zamora (Zabalza 1993: 15).

Errealitate horrek, aldiz, ez zuen islarik izan hedabideetan, ez instituzioetan, ezta erakundeetan ere. LABek, eta ezker abertzale osoak, behin eta berriro salatu zuen jarrera hori. Irailaren 27an Herri Batasunak greba orokorrerako deia luzatu zuen Gipuzkoan, LABek sostengatu zuena.

11. Ertzaintza

Ertzaintzaren Kontseilua uztailaren 1ean osatu zen Bilbon, Barne Saileko bost ordezkari eta sindikatuetakoa beste horrenbeste partaidez. Borroka-sindikatuak zenez, LAB prozesu horretatik kanpo egon zen, baita ESK-CUIS eta CGT ere, Ertzaintza langilearen aurkako errepresio-indarra besterik ez zelakoan. Gainerako sindikatuen ordezkariak martxoaren 26ko hauteskundeetako emaitzen arabera izan zen, hots, hiru ordezkari ELAkoak eta bi ERNEkoak. Azken sindikatu honen eta Barne Sailaren arteko harremanak hobetu ziren urriaren 31n egindako III. Biltzarraren ondoren¹.

LABek ertzainen gehiegikeriak ez salatzea aurpegiratzen zion ELA sindikatuari. Ildo horretan, langileen mobilizazioen aurka bortizki aritzeaz gain detentuek jasandako tratu txarreatatik ere salatu zituen. Izan ere, Juan Calvo Azadal abuztuaren 20an hilda agertu zen Ertzaintzaren Arkauteko egoitzan, ustez taxi bat lapurtzea-

1. Ikusi Txema Ramirezen liburua. 1990era bitarteko bilakaera aztertzen du.

gatik atxilotu ondoren. Makilakaden markak nabari agertu ziren forenseak egindako argazkietan.

Azaroan, ETAk Joseba Goikoetxea Asla ertzainaren aurka egindako ekintza izan zen panorama politikoa zein sindikala astindu zuena (ELAko afiliatua ere bazen). ELAk eta ERNEk manifestazio jendetsua antolatu zuten Bilbon “Ertzaintza pakearen alde” lelopean. Ezker Abertzaleak “Ertzaintza kriminalizatzeko zuzendutako kanpaina”ren barruan kokatu zuen ELAk gertaera hori.

Cualquier campaña intencionada y sistematizada de desprestigio de nuestra policía será objeto de condena por parte de una gran mayoría de la población vasca. Es un hecho incuestionable la profesionalidad de la Ertzaintza como policía integral y su desarrollo en el marco del autogobierno de Euskadi, por encima de intereses personales (*Egin* 93-11-24: 11).

LABek, aldiz, gatazkaren izaera politikoari zegokion irtenbide politikoa eskatu zuen berrir:

Es hora de establecer los marcos de negociación y diálogo que permitan que la represión, la denegación de derechos democráticos elementales y la propia lucha armada tengan un espacio de reconducción positiva para el futuro de este país (*Egin* 93-11-24: 10).

Abenduan, ETAk gutun bana bidali zien Ertzaintzako ELA, ErNE, UGT eta CCOO sindikatuei, indar polizial horren jarrera aldatzeko gonbidapenarekin:

Dejad el camino de la represión y la tortura; interrumpid los ataques contra la izquierda abertzale y, en general, contra los colectivos y ciudadanos vascos; en definitiva, demostrar una postura clara en favor de Euskal Herria. El comportamiento de ETA sólo estará condicionado por ese cambio de actitud. Como hasta ahora, está en vuestras manos (*Egin* 93-12-31: 13).

Joseba Goikoetxeari buruz *Egin*-ek kaleratutako informazioa zela-eta, egunkariaren eta Ezker Abertzalearen aurkako beste kanpaina bat antolatu zen. José Luis Corcuera espainiar Estatuko Barne Ministroaren esanetan, *Egin* ixteko “lotsa” galdu behar zuen gizarteak: «Egun batean lotsa galtzen badugu, terrorismoa sendotzen laguntzen duen egunkari bat itxiko du espainiar gizarteak» (*Egunkaria* 93-11-24: 5). EGIk, PNV-EAJko gaztediak, «Egin apunta, HB-KAS carga y ETA ejecuta» kartelak jarri zituen (*Egin* 93-11-24: 10). Juan Maria Atutxa Barne Sailburuak ere egunkariak egiten zuen “kalteaz” hitz egin zuen, eta haren aurkako neurriak eskatu zituen (*Egunkaria* 93-11-26: 5).

Adierazpen horiek guztiak *Egin*-en aurkako eraso judizialerako prestaketa besterik ez ziren izan. Abenduaren 1ean Ertzaintza *Egin* egunkariak Hernanin eta Bilbon zituen egoitzetan sartu zen eta miatu egin zituen Espainiako Entzutegi Nazionaleko Carlos Bueren epailearen aginduari jarraiki. Jose Antonio Ardanza EAEko lehendakaria ere *Egin* ixtearen alde agertu zen:

Egin ixtea bake bidean positiboa dela pentzatzen segitzen dut, Egin KAS blokeko tresna bat gehiago delako, Egin ez da ohizko egunkari bat, indarkeria etengabe defenditzen ari da, demokraziaren bestaldean dago (*Egunkaria* 93-12-3: 5).

Egin-i babesa azaltzeko, eta adierazpen-askatasunaren alde, milaka lagun manifestatu ziren Bilbon. Abenduaren 18 horretan 50.000 lagunetik gora bildu ziren, antolatzaileen ustez (LABek ere deitu zuen Bilbora joateko).

12. Herri-mugimenduak

Sindikatuetikiko eta herri-mugimenduetikiko harremanen inguruko hausnarketa piztu zen LABen barruan, 90eko hamarkadako ezaugarrietako bat izan zena hain zuzen: lotura hori nola sustatu eta garatu. Horren adibide garbia izan zen Oinarriak-en euskararen aldeko kanpaina. Plataforma horren III. Batzarrean jende ugari bildu zen martxoaren 13an: AEK, LAB-irakaskuntza, STEE-EILAS, Marmari Taldea, EHE, Ozenki taldea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Euskara Zerbitzua, Sortzen, Ikastolen Elkarte eta Nafarroako Gobernuako Euskarazko Ikastaroak. LAB eta ELA ez ezik CCOO ere agertu zen Oinarriak-ek azaroan antolatu zuen Euskararen aldeko II. Agerraldian, euskal komunikabideen legeztatzea aldarrikatzeko. Lantokietan euskara bultzatzeko ELA, LAB, ESK-CUIS, STEE-EILAS eta UGTk *Bai esan. Lehenengo hitza euskaraz* kanpaina ere martxan jarri zuten apirilean. Urrian, AEKrekin batera, sindikatuak eta Nafarroako Gobernuak langileak euskara ikastera motibatuzeko kanpainari hasiera eman zioten.

Ikastolen auzian, aldiz, talka egin zuten sindikatu abertzaleek. Sare publikoan sartzearen aldekoen eta pribatuaren aldekoen arteko eztabaida maiatzaren 25ean amaitu zen. LABek berak onartu zuen bezala, «tentsio ugari, zatiketa, zauriak eta batez ere frustrazioa» eragin zituen prozesu horrek. LABek egonezinak gainditu eta ikastetxearen etorkizuna bermatzen ahalegindu zitezen eskatu zien ikastoletako langileei, sare publikorako zein pribaturako bidea hautatu zuten zentruetako langileei. Bestalde, eskola publiko berria egiteko aukera ezin hobea galdu izana leporatu zien LABek Gasteizen gobernukide ziren PNV-EAJ eta PSOE alderdiei, nahiago izan baitzuten «inposaketa eta xantaiaren bidea erabiltzea eskakizun sozialari erantzutea baino» (*Egin* 93-5-29: 26).

Beste alde batetik, intsumisioaren alde eta Ordezko Zerbitzu Sozialaren aurkako kanpaina burutu zuten sindikatu guztiek, UGTk izan ezik. Gauza bera gertatu zen Itoizko lanak gelditzeko azaroan antolatutako manifestazioan. Borrokarako grina edo konpromisoa bezalako kontzeptuek ez zuten jada aspalditik zerikusirik sindikatu horren jarduerarekin. Emakumeak, homosexualitatea, intsumisioa eta ekologismoa gaiak, ordea, maiz izan ziren LAB sindikatuarentzat hausnartzeko gaiak. Azken batean, haren izaera soziopolitikoari eutsiz, lan-baldintza hobek ez ezik, gizarte-eredu berri baten aldeko apostua ere egin zuen hasiera-hasieratik.

13. ELAren eta LABen arteko batasunerantz

Espainiako Gobernua, CEOE, UGT eta CCOO Madrilan burutzen ari ziren enpleguaren aldeko Hitzarmen Sozialak ELA, LAB eta CCOOren arteko akordio sindikalaren amaiera ekarri zuen, zeren eta azken sindikatu horrek Lan Harremanetarako Euskal Esparruari muzin egin zion eta negoziazio-marko estatalaren alde egin zuen apostua. Horrela azaldu zuen CCOO bere jarrera Madrileko negoziazioen aurrean. Bederatzi hilabeteko batasun sindikalaren eta ekimen horren amaieraren inguruko aipamenik ez zuen egin, ordea:

La mejor defensa de un marco autónomo de relaciones laborales es la consolidación de espacios de negociación en el mismo. En ese sentido, la ausencia de un acuerdo por el empleo y la reindustrialización en la Comunidad Autónoma Vasca o la no implicación en los procesos de negociación a nivel estatal, es rehuir las posibilidades de articulación de estrategias sindicales y el debilitamiento de los marcos autónomos (*Biltzar*, 1993ko iraila, 2. or.).

Jose Elorrietak, ordea, bai azaldu zuen *Landeia*-k egindako elkarrizketa batean:

En ELA estuvimos cierto tiempo a la expectativa, esperando a ver si se despejaba en positivo la posición de UGT y CCOO, teniendo en cuenta, sobre todo, que con CCOO teníamos una unidad de acción y que en los últimos tiempos parecía que podía alimentar una cierta línea autónoma, con un discurso propio en la defensa de los marcos de negociación colectiva. Sin embargo, Comisiones de Euskadi, finalmente, ha optado por plegarse a Madrid, y darle total cobertura a este diseño centralista y uniforme.

El discurrir de los acontecimientos, por tanto, acabó con cualquier esperanza de unidad a tres, por lo que nos pusimos en contacto con LAB, dentro de un planteamiento unitario (Aurrekoetxea 2003: 131).

Sindikalismo abertzalearen eta estatalaren arteko ezin-adoste horren ondorio zuzena izan zen 1993ko azaroaren 17an ELAk eta LABek sinatutako akordioa. PSOEko Gobernuak egindako hitzarmen politiko ekonomikoaren aurkako kanpaina martxan jartzea Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian izan zuten helburu. Enplegu-politika berri baten alde, desertifikazio industrialari aurre egiteko plan industrial baten beharra azpimarratzeaz gain, lan-harremanetarako marko autonomoaren defentsan aritu ziren, betiere euskal eremu ekonomikoari begira.

Aldaketa horien ondorioz, bi bloke berri eratu ziren lau herrialde horietan. Bate-tik, CCOO eta UGT, sistemaren magalean eta espainiar Gobernuaren zein Gobernu autonomikoen politika ekonomiko eskuindarrekin etengabeko itunak sinatzen. Bestetik, euskal sindikalismo abertzalea. Azken horrek gizarte-soldataren alde, aparteko lanorduen edota ABLE-en aurka egindako borrokagatik, gero eta erreferentzialtasun handiagoa lortu zuen, hamarkada horretako hiru hauteskunde sindikaletan ikus dezakegun bezala.

Euskal sindikalismo abertzaleak 1994an lortu zuen ekintza bateratuak, gainera, beste auzi bat azalarazi zuen: Lan Harremanetarako Euskal Esparrua eta Euskal Esparru Sozio-Ekonomikoa (ELAk eta LABek adostutako bi apustu estrategikoak) versus Lan Harremanetarako Espainiar Esparrua. Eta auzi horrek beste bat islatzen zuen, hau da, Estatuko marko politiko-konstituzionala versus euskal marko politiko-juridiko berria. Koordinada horietan ulertzen da azken urte hauetan sindikatu estatalen eta Espainiako Gobernuaren bat etortzea. Etengabeko Lanbide Heziketa dela-eta, FORCEM estatalaren eta EAEko Hobetuz-en arteko gatazkan ikusten dugu, funtsean, Gobernu zentralak diru-banaketarako monopolioa nahi duela, Estatuaren integrazio nazionalaren onurarako.

14. Ondorio gisa

Ikusi dugun bezala, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian lau aliantza sindikal desberdin egin ziren 90eko hamarkadaren lehenengo urte horietan. ELAk, CCOOk eta UGTk 1989tik zuten akordioa 1992an hautsi zen, UGT kanpoan geratu zen, eta LABekin osatu zuten hitzarmen berria, nik aztertu dudana hain zuzen. CCOO-Nafarroak segituan errefusatu zuen, ordea. Bederatzi hilabeteko ekintza bateratu berria desagertu ondoren, ELA eta LAB sindikatu abertzaleek fase berri bati ekin zioten, hamarkada osoa ezaugarritu zuena. Aldi berean, egonkortu egin zen Nafarroan UGT eta CCOOk zuten harreman estua. Beraz, esan dezakegu, euskal sindikalismoa bitan banatu zela, 1993tik aurrera: Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren eta Euskal Esparru Sozioekonomikoaren aldekoak eta aurkakoak aurrez aurre.

Aztertu dudan sindikatuen ekintza bateratua parentesi gisa definitu dut aurreko orrialdeetan, CCOOk, beti zalantzakor, azkenean muzin egin baitzion Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren aldeko dinamikari. Hilabete horietan sindikatu honen jarrera eta borondatea argituz joan ziren eta bere ahots kritikoak isilaraziz. Parentesia itxi, eta 1992ko M-27 horretan martxan jarri zen bideari eutsi zioten sindikatu abertzaleek. Interesgarria da denbora tarte hori, ELAren eta LABen arteko aliantza eragingo duten faktoreak nabarmenki agertu baitziren. Beste era batean esanda, beste fase luzeago batera eramango duten elementuak ikus ditzakegu.

Lehenik eta behin, UGTren eta CCOOren jarrera zentralista dugu, Lan Harremanetarako Espainiar Esparruaren alde; eta haien borrokarako borondate eza, beti Gobernuen politikaren bermatzaile. Euskal Herrriari galtzen ari ziren ordezkartzaren beldurra, kudeaketa-sindikatuaren izaera, militantziaren gabezia eta diru-autonomiarik eza, besteak beste, dira aintzat hartzeko elementuak, jarrera hori ulertu ahal izateko.

Jarrera zentralista horrek ELA kaltetzen zuen bereziki. Izan ere, ordezkartza handiena izanda ere, negoziatzeko gaitasuna kolokan jartzen zuen. Indar-metaketa berri baten beharra hasi zen nabaritzen, LAB aintzat hartzeko beharra.

Aurreko hamarkadan definitu zuen politika paktista alboraturik, ELAk gero eta diskurtso kritikoagoa azaltzen zuen Madriletik, Gasteizetik eta Iruñetik ezartzen zen politika ekonomikoaren eta sozialaren aurrean. Nahiz eta maiz LABen diskurtso politikoa kritikatu, Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren aldeko aldarrikapenak talka egiten zuen marko politiko estatutario-konstituzionalarekin. Horren guztiaren eraginez, EAJrekiko zein Gasteizko Gobernuarekiko harremanak zaildu egin ziren, ikusi dugun bezala. Ezin dugu ahaztu, 1986ko irailean EAren sorrerak eta jeltzaleek PSErekin lortutako akordioak zaildu egin zutelako EAJrekiko lotura hegemoniko hura.

ELAk ez zuen gustuko, ordea, LABen izaera soziopolitikoa, eta beren arteko hurbilketak ez zuela kutsu politikorik azpimarratzen zuen behin eta berriro. Horrek agerian uzten zituen bi sindikatuen izaera desberdinak. LABek bat egiten zuen beti herri-ekimenekin zein nazio-askapenerako borrokararekin. Azken batean, lan baldintza hobek ez ziren gizarte-eredu berri bat ere bilatzen zuen sortu zenetik.

Errepresioa eta bazterketa sindikala pairatu behar izan zituen, baita gure parentesi labur honetan ere.

Artean, ELAk Estatutua tresna estrategikotzat aldarrikatzen jarraitzen zuen. LABek, ordea, marko juridiko-politiko berriaren beharra azaltzen zuen noiznahi. Euskal Herriaren inguruko irakurketa politikoak desberdinak ziren arras, borroka armatuaren, Ertzaintzaren, errepresioaren edota sindikatuen zereginei zegokienez.

LABen ere aldaketa nabariak gertatu ziren, jardueran zein diskurtso sindikalean, eta ezagutu zuen hazkunde- eta gorpuzte-prozesuak gero eta erreferentzialtasun handiagoa eman zion. Negoziazio-mekanismo guztiak erabiltzeaz gain, ezingo genuke ulertu hau guztia, urte latzetan langileek egindako borrokari esker lortu dela aitortu gabe.

Bat-etortze prozesu hori, beraz, gatazka politikoak ez ezik, berezko eredu sindikalek ere baldintzatzen zuten. Parentesi honetan ikusi bezala, zailtasunak zailtasun, biek egin zuten apostua Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren alde, biak jabetzen baitziren ezinbesteko elementua zela euskal langileen interesak defendatu ahal izateko. CCOO-k aldarrikapen hori erabat alboratu zuen eta UGT-rekin batera eredu zentralista eta kudeatzaile hutsari eutsi zion hurrengo urteetan.

Bibliografia

- Aurrekoetxea, M. (2003): *De Solidaridad de Obreros Vascos a Euskal Langileen Alkartsuna, 1911-2001: Notas para una crónica de 90 años*, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbo.
- Bárcena, I., Ibarra, P. eta Zubiaga, M. (1995): *Nacionalismo y ecología: Conflicto e institucionalización del movimiento ecologista vasco*, Los libros de la Catarata, Madrid.
- Bengoetxea, A. eta Irurtzun, K. (2000): *Zuzenbide Sindikala*, EHU, Zarautz.
- Cassan, P. (1998): *Francia y la cuestión vasca*, Txalaparta, Tafalla.
- ELA (1993): *Biltzarreko Ebazpenak*.
- Garzia, J. eta Izagirre, N. (2001): *Sindikalismoaren Berri Onak*, Alberdania, Irun.
- Gómez, M., Lagasabaster, I., Letamendia, F. eta Zallo, R. (1999): *Propuestas para un nuevo escenario: Democracia, cultura y cohesión social en Euskal Herria*, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbo.
- Herri Batasuna (1999): *Herri Batasuna: 20 urte... eta aurrera!*, 1978-1998, Euskal Herria.
- Idigoras, J. (2000): *El hijo de Juanita Gerrikabeitia*, Txalaparta, Tafalla.
- KAS (1994): *Euskal Herria necesita la independencia*.
- Kaiero, A. (1999): "Sindicatos y Marco Vasco de Relaciones Laborales", *R.I.E.V.* **44**, 1, 89-116.
- LAB (1992): *Biltzarreko Ebazpenak*.
- Letamendia, F. (2000): *Sindicalismo de ámbito vasco y autogobierno: el espejo del Quebec* ikastaroa, XIX. Uda Ikastaroak, Donostia.
- Majuelo, E. (2000): *LAB sindikatuaren historia: Langile Abertzaleen Batzordeak (1975-2000)*: Txalaparta, Tafalla.
- Miguélez, F. eta Prieto, C. (1991): *Las relaciones laborales en España*, Siglo XXI, Madrid.
- _____, (1999): *Las relaciones de empleo en España*, Siglo XXI, Madrid.
- Ramirez, T. (1992): *Ertzantza, ¿Héroes o villanos?: Pasado y presente de la policía autonómica vasca*, Txalaparta, Tafalla.

Ubierna, J. (1997): *Euskal Herriko Kartelak: Askatasunaren irudiak*, Txalaparta, Tafalla.
Zabalza, R. (1993): *¡Secuestrados!: 117 días en la encrucijada vasca*, Txalaparta, Tafalla.
Zaldua, I. eta Zurbano, M. (1995): *Industrializaziotik desindustrializaziora? Euskal Herria kapitalismoaren garapenaren testuinguruan*, UEU, Bilbo.